



## ERANSKINA

### LAUDIOKO UDALA.

#### LAUDIO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAN DIRU BILTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

### AURKIBIDEA

<b>ZIOEN AZALPENA</b>	<b>2</b>
<b>I. KAPITULUA.- XEDEA, EZARPEN ESPARRUA.</b>	<b>2</b>
1. Artikulua. - Xedea	2
2. Artikulua. - Ezarpen esparrua.	2
<b>II. KAPITULUA.- HASIERA BAIMENA LORTZEKO JARRAIBIDEA ETA OSTEKO BAIMEN DEKRETUA LORTZEKO PROZESUA.</b>	<b>3</b>
3. Artikulua. -	3
4. Artikulua. - Eskaera	3
5. Artikulua. - Izapideak eta ebazpena	4
<b>III. KAPITULUA.- DIRU-BILTZEAZ</b>	<b>5</b>
6. Artikulua. - Baimenaren baldintzak	5
<b>IV. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK</b>	<b>5</b>
7. Artikulua. - Zigor prozedura	5
8. Artikulua. - Arau-haustek	6
9. Artikulua. - Zigorrak eta isunak	7



## **LAUDIO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAN DIRU-BILTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Diru-biltze jarduna gauzatu da, orain arte, Laudio udalerriaren barrutian, udal ordenantza bidezko inolako erregulazio barik. Beraz, jarduera horren ordenazio egokia lortu nahi da Ordenantza honen bidez. Horregatik, hiritarrak kaltetuak suertatu diren egoera batzuk gertatu direnez eta egoera horietan kaltetutako hiritarrek euren eragozpenak Udalarari jakinarazi dizkiote aipatu den jardun hori gauzatu behar behar den formaz eta moduz, are gehiago, egindako dirubilketaren benetako xedeaz eta norakoaz zalantza ere.

Horretarako, Udalak deritzo komeni dela jarduera horri gutxienezko arau batzuk jartzea, hala bide publikoaren okupazioa ezinbestekoa den kasurako, nola okupazio hori beharrezkoa ez den kasuetarako. Horretarako, Ordenantza honek seinalatu nahi ditu hori egin ahal izateko baimena emateko betebeharrak, zein prozedura jarraitu behar den eta baimena lortu ondoren diru-biltze jardunean ibiltzeko baldintzak zehaztea.

### **I. KAPITULUA.- XEDEA, EZARPEN ESPARRUA.**

#### **1. ARTIKULUA.- XEDEA.**

1.- Ordenantza honen asmoa eta xedea da arautzea Laudio udalerriko bide publikoetan diru-biltze jardunean ibiltzea eta aritzea, mahaiak, mahaitxoak edo antzerakoak horretarako ipini ala ez.

2.- Diru-biltze legez hartzen da normalean edozein oinezkori ala ibilian doanari dirua eskatzea ongintzazko, kulturazko, gizarte- edo laguntza- izaeradun motiboen aipua dituzten pegatinen, eranskailuen edo elementu sinboliko itsaskor berdinkideen truke.

#### **2. ARTIKULUA.- EZARPEN ESPARRUA.**

Ordenantza hau ezarriko da Laudio udalerriaren barrutiko bide publikoetan diru-biltze jardunari.



## **II. KAPITULUA.- HASIERA BAIMENA LORTZEKO JARRAIBIDEA ETA ONDORENGO BAIMEN-DEKRETUA LORTZEKO PROZESUA.**

**3. ARTIKULUA.-** Kapitulu hau ezarriko da bide publikoetan eskean ibiltzeko jardunari, hala bide publikoaren okupazioa egiten denean zein okupaziorik ez denean egiten, hau da, bide publikoan joan-etorrian, harantza eta honantza eskean ibiltzearen bitartez..

### **4. ARTIKULUA.- ESKAERA**

1.- Eskean ibili nahi duten interesatuek eskaera aurkeztu behar dute Udal honetan, gutxienez ere, eskean hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost eguneko alde aurretikotasunaz.

Eskaeran aipatu behar da, honako hauxe:

- a. Eskaera aurkezten duen erakundea, taldea edo elkartearen izena eta bere norbanako ordezkariaren nortasuna, helbidea jakinarazpenetarakoeta harreman-telefono bat.
- b. Zein erakunde, talde edo elkarteren alde egingo den diru-biltze jarduna.
- c. Diru-biltzen ibiltzeko aurreikusitako eguna eta ordutegia zehaztasun eta xehetasunez.
- d. Diru-biltzen ibiltzeko aurreikusitako ingurua. Diru eskatze horrek jabetza eta titulartasun publikoaren okupazioa suposatu behar duenean zehaztu, mesedez, non kokatuko den eta okupatuko duen azaleraren luzera eta zabalera.
- e. Jardun hori bi edo unitate gehigok egiten badute, zehaztu behar da zenbat izango diren eta izango duten osaketa eta konposizioa.

2.- Diru-biltzen jardunaren emaitza jasoko duen erakunde, organizazio, talde edo elkartearen egiaztatzeko dokumentazioa (Estatutuak, Baimendutako Administrazio Erregistroko inskripzio ziurtagiria, e.a.) aurkeztu beharko dute interesatuek eskaerarekin bateta.

Laudio Udaleko Elkarteen Udal Erregistroan inkribatuta dagoen erakunde bat bada, baldintza eta inguru abar hori berariaz eta beren beregi jasota geratzea nahikoa izango da.



3.- Aurkeztutako dokumentazioa Udal Zerbitzu Teknikoek aztertu eta kontrastatuko dute, zehaztu ahal izateko erakutsitakoa nahikoa den ala ez, benetako eta egiazko izaera duela irizteko.

Aurkeztutako dokumentazioari irizten bazaio ez dela nahikoa edo ez dela egokia, arazo hori hiru behar eta lan eguneko epean osotu eta konpondu behar da; eta epe hori, gutxienez ere, amaituko da baimena onartu ala ez onartu ebazpena hartu baino aldez aurretiko denbora nahikoaz.

Osotu edo konpontzeko emandako epea amaitu ondoren, eskatutako dokumentazioa ez bada aurkeztu edo aurkeztutakoa ez bada nahikotzat jotzen eta irizten, eskatzaileari jakinaraziko zaio, forma arrazoituan, bere eskaera artxibatu egin dela, beste izapide gehiagorik gabe.

## **5. ARTIKULUA.- IZAPIDEAK ETA EBAZPENAK.**

1.- Udal Zerbitzu Teknikoek dokumentazioa egiaztatu ostean, Hirigintza eta Ingurumen Arloak eta Ogasun eta Ondare Arloak dagokion baimen jarraibidea emango dute.

2.- Baimena ematea Alkatezako Dekretu bidez egingo da; bertan zehaztuko da jarduna gauzatuko den eguna, zein ordutegia izango duen eta baimendutako unitateen zenbatekoa. Aldi berean, Dekretuak zehaztuko du diru eske jarduera horrek jabetza eta titulartasun publikoaren erabilera egin behar duen okupazioaz, eta hala bada, okupazio horren lokalizazioa eta izango duen azaleraren neurriak.

3.- Jabetza publikoaren okupazio bidez egiten bada diru eske ibiltzeko jardunaren tasen ordainketa dagokion Ordenantza Fiskalaren arabera doituta egingo da.

4.- Diru eske jarduna gauzatu behar da ibilgailu eta oinezkoen joan-etorri librea eragotzi barik eta beti ere, baimena eman duen Alkateza Lehendakarietzako Dekretuan adierazitako jarraibideekin bat edo, horiek betetze aldera, Udaltzaingoak agindu ahal dituenekin bat.



### **III. KAPITULUA.- ESKALE JARDUERAN IBILTZEA EDO ARITZEA**

#### **6. ARTIKULUA.- BAIMENAREN BALDINTZAK**

1.- Erakundea, talde edo elkarte eskatzaileak egokitu eta moldatu behar du diru eske jarduna eskaeran zehaztutako eta baimena emandako unitateen zenbateko zehatzera. Jabetza publikoaren okupazio kasuan, horren kokapena eta azaleraren luzera eta zabalera moldatu eta egoki beharko dira baimena eman duen Dekretuan ebatzitakora.

2.- Unitate bakoitzak gauzatuko duen diru eske jardunaren egiaztapen txartela izango du aldean; txartelean jasota egongo da erakunde, talde edo elkarte eskatzailea zein den eta baimena eman duen Alkatetzako Dekretuaren zenbakia zein den.

3.- Erakunde, talde edo elkarte eskatzaileak diru-biltzen darabilen unitate bakoitzaren erregistroa eta kontrola eraman behar du, hala nola unitatea osatzen dutenen nortasuna eta identifikazioa ere. Informazio hori Laudioko Udaltzaingoari eman behar zaio, Udaltzaingoak hala eskatuta beharrezko den kasu guztietan.

4. Diru-biltze jardunean unitate diru biltzaile bakoitzak sortu ahal dituen balizko kalte, ezbehar edo gora beheren arduradun eta erantzule bakarra erakunde, talde edo elkarte eskatzailea bera izango da. Edozein kasutan ere, momentu bakoitzean Udaltzaingoak eman ahal dituen adierazpen eta jarraibideak jarraitu behar dira, samaldak eta pilaketarik ez izateko, oinezkoen edo zirkulazioaren joan-etorrian eta trantsituan eragozpenik ez sortzeko edo ezbeharrik ez izateko, batez ere merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen atetan sortzen badira.

### **IV. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ISUNAK**

#### **7. ARTIKULUA.- ZIGORRAK ETA ISUNAK JARTZEKO PROZEDURA.**

1.- Ordenantza honetan erabakitakoaren aurkako arau-hausteei udalak zigorra eta isuna jarriko die, aldez aurretik dagokion zigor-espeditatea izapidetuta, erabakia eta ebatzia hartzea Alkatetza Lehendakariari dagokiola.

2.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei zigorrak eta isunak ezartzeko eta zigor-ebazpenen aurka errekursoak ipintzeko prozedura, indarrean dagoen administrazio prozedura arloko zigortzeko eta xehapen araudian erabakitakoa izango da.

3.- Arau-hauste eta urraketen erantzule izango dira jarduera egiteko administrazio baimenaren pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak ala, solidarioki eta elkartasunez, tipifikatutako arau-haustea bururatu eta egin duten pertsona fisiko egile materialak.



## **8. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK.**

1.- Hona hemen arau-hausteak nola sailkatzen diren: oso larriak, larriak eta arinak.

2.- Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Eskale jardueran ibiltzea edo aritzea horretarako administrazioaren baimen barik.
- b) Diru-biltze jardueran bide publikoan ibiltzeaz edo kokapenez, pertsonen edo ibilgailuen joan-etorri eta trantsiturako une horretan diren arazo larrien aurrean, Udaltzainek ala Agintaritza-Agenteeek emandako aginduak ez betetzea.
- c) Diru-biltze jardunean ibiltzea, erabilera eskubidedun beste pertsona bati edo beste pertsona batzuei espazio publiko baten erabilera era larrian galerazi eta eragotzita.
- d) Diru-biltzen ibiltzea zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalari eragozpena edo oztopo larria sortuz.
- e) Erabaki finko bidez zigortutako bi edo hutsegite larri gehiago jarraian egitea.
- f) Eskaperan aurkeztutako datuak faltsuak izatea.
- g) Diru-biltzen eta eskean ibiltzea hiritarrak bortxatu, behartu edo derrigortuz.

3.- Arau-hauste larriak dira:

- a) Diru eskean ibiltzea dagokion administrazio baimenean ezarritako oinarrizko eta funtsezko baldintzak bete barik.
- b) Diru eske jardunean ibiltzea, erabilera eskubidea duten beste pertsona baten edo beste pertsona batzuen aldetiko espazio publiko baten erabilera era larrian galerazi eta eragotzita.
- c) Diru eskean ibiltzea zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalari eragozpena edo oztopo larria sortuz.
- d) Erabaki finko bidez zigortutako bi edo hutsegite arin gehiago jarraian egitea.



- e) 5.- Arau-hauste arinak dira Ordenantza honen gainerako ez betetze guztiak.

## 9. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

1.- Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteei honako isun hauek ipiniko zaizkie:

- a) Administrazio arau-hauste oso larria egiteagatik: **3.000 •** arte.
- b) Administrazio arau-hauste larria egiteagatik: **1.500 •** arte.
- c) Administrazio arau-hauste arina egiteagatik: **750 •** arte.

2.- Ipini eta ezarri behar den zigorra eta isunaren graduazioa, irizpide hauek aplikatu ostean zehaztuko da:

- a) Beste pertsonen eskubideen edo jardueren egikaritzapen baketsuan edo lasaitasunean sorrarazitako ikararen intentsitatea.
- b) Erabiltzeko eskubidea duten pertsonengan, espazio publiko baten edo zerbitzu baten erabileran sorrarazitako ikararen intentsitatea.
- c) Zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalean sorrarazitako ikararen intentsitatea.
- d) Zerbitzu publiko baten edo espazio publiko baten ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo elementuetan, behin behineko izaeraz, sorrarazitako kalteak.

Laudio, 2006ko uztailaren 28.a